

AZALPENA

Balio humanistikoak, erlijio kutsurik gabe, eta beharrezko gaitasunak lantzen dira pertsonaren garapen integralerako, hala nola, lankidetzak, adiskidetasuna, konfiantza, konpromisoa, askatasuna, niaren baieztasuna, ardura, adeitasuna, erabakimena, norberaren balorapena, autoestimua, errespetua, tolerantzia, norberaren ezagutza, solidaritatea, bakea, justizia, begikotasuna, enpatia, maitasuna, autonomia. Tutoretzan lantzen diren gaien osagarri izango dira.

HELBURUAK

- Iritziak eta arrazoiak adierazteko gaitasuna.
- Proiektuetan parte hartzeko gaitasuna.
- Zeinuak, hitzak eta hitzekoa ez den hizkuntza interpretatzeko gaitasuna.
- Norbere nortasuna eta bizitzarako jarrera aintzat hartzeko ahalmena.
- Erabakiak hartzeko eta proiektuak gauzatzeko gaitasuna.
- Interpretazio kodeak zuzen aplikatzeko gaitasuna.
- Gertaera eta adierazpen soziokulturalak balioesteko gaitasuna.
- Gaur egungo gizarteko gertaerak aztertzeke gaitasuna.
- Norbere burua eta besteak errespetatzeko gaitasuna.
- Norbere irudi fisikoa eta besteena onartzeko eta errespetatzeko gaitasuna.
- Norbere buruaren kontrola lasaiketaren bidez.

EDUKIAK

- 1.- Norbere eta elkarren arteko ezagupena
- 2.- Taldea eta Ni
- 3.- Lasaiketa
- 4.- Nortasuna
- 5.- Gurasoekiko harremana
- 6.- Enpatia
- 7.- Sintesia

METODOLOGIA

Lortu nahi ditugun gaitasunak lantzeko metodologia egokia bilatu da. Irakasleak azalduko ditu egin beharreko lanaren ildo nagusiak, eta ikasleek lana gauzatu dute, bakarka nahiz taldeka, dagokionaren arabera. Hala, eskoletako lan saioak lantzen ari garen trebetasunen eta unearen arabera aldatuko dira. Nolanahi ere, ikasleak izango dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren protagonista. Metodologia aktiboa eta zuzena izango da, beraien eguneroko gaiekin zuzen lotuta.